

BASAGAINGO HERRIXKAKO (ANOETA, GIPUZKOA) INDUSKETA  
ARKEOLOGIKOAREN

TXOSTENA

XXVIII. EKINALDIA

2022KO IRAILA



**Historiaurreko Arkeologia Saila**

Aranzadi Zientzia Elkartea

Donostia

Zuzendaritza: Xabier Peñalver Iribarren eta Eloisa Uribarri Agirrebengoa



## **SARRERA**

Basagaineako herrixkak Burdin Aroaren amaieraren eta erromatar munduaren eraginen hasieraren (hau da, aurreko Aroaren amaieraren eta gaur egungoaren hasieraren) arteko trantsizioari buruzko galdera asko sortzen jarraitzen du.

Aztarnategi honetan gauzatutako ekinaldi bakoitzean, datu berriak lortzen ditugu oraindik nahiko iluna den gure iraganeko garai horri buruz: bizimoduak eta bertako biztanleen jardueren espezializazioa, merkataritza-harremanak hurbileko nahiz urruneko ingurunearekin, sinismenak, hileta-errituak...

Urtez urte esku hartzen ari garen bizitoki-testuinguruan agertutako piezek, hango biztanleei buruzko ezagutza aberasten digute eta, zeharka, baita urte erabakigarri horietan gaur egungo Euskal Herriaren isurialde atlantikoko lurraldea okupatu zuten beste jende batzuen ere.

Aldi berean, esparru harresitu honetako eraikuntza-tipologiak ikertzen jarraitzen dugu, bai babes-sistemaren ibilbideari eta sarrerei dagokionez, bai espazioen barne antolaketari eta aldi horretan erabilitako eraikuntza-moduei –eta horien aldaerei– buruz.

Hiru aste horietan, landa-lan hori guztia aztarnategia jendarteratuz tartekatzen dugu herrixkatik hurbil xamar bizi direnen artean, izan eskola-umeen taldeak edo gure iraganaz interesaturiko helduak.



2022ko indusketa-ekinaldiko partaideak.

## **HERRIXKAREN DESKRIBAPENA**

Basagaingo herrixka harresitua izen bereko mendian dago, itsas mailatik 295 m-ko altuerara, eta Oria ibaitik 227 m-ko altuerara eta 650 m-ko distantziara, Iruraren parean, Anoeta (Gipuzkoa) udalerrian.

Muino luzexka batean kokatua, lurrez estalitako harresi batek oso-osorik inguratzen du, nahiz eta horren ibilbidearen gehiengoan ezponda baino ez den ikusten; inguruaren ikuspegi zabala dauka, eta horrek Oria ibaiaren ibilguaren zati handi batekiko kontrol handia ematen dio. Esparruko zenbait aldetatik ibai beraren gainean kokatuta dagoen Buruntzako herrixka (Andoain) ikusten da.

Guztira 2,81 hektareako azalera dauka, eta gailurrean ipar-hego norabidean 100 m luze eta ekialde-mendebalde norabidean 25 m zabaldun (2500 m<sup>2</sup>, beraz) eremu bat dauka. Dena den, herrixkaren terrazadun eremuak garrantzi handia du, arkeologia-lanek erakusten duten moduan.

Eremu hori esparruaren ekialdeko aldetik doa eta hegoaldean mendebaldera biratzen da; ibilbide osoa harresiaren ondoan egiten du eta

kota oso uniformea mantentzen du. Terraza horrek 30/35 m-ko zabalera hartzen du toki batzuetan, esku hartu dugun eta egituren aztarnak eta material ugari aurkitu diren eremuan, hain zuzen ere. Esparru honetako eremu lauek 11250 m<sup>2</sup>-ko azalera hartzen dutela kalkulatu da, hau da, harresitutako azalera osoaren % 40. Herrixkaren gehieneko aldapa % 32,42koa da, eta gutxienekoa berriz % 22koa.

Esparruaren goiko aldean, unerren batean harria erauzi zela diruditen bi leku daude; lehenak 40 m<sup>2</sup> inguruko azalera dauka, eta bigarrenak, berriz 80 m<sup>2</sup> ingurukoa, haitzaren ebaketa bertikalaren alderdian 2,20 m-ko gehieneko sakonera duenarik.

Material arkeologikoei eta C<sub>14</sub> bidezko datazioei esker dakigu, herrixkaren induskatutako eremua gurearen aurreko aroaren azken mendeen eta gurearen lehenengoan artean kokatzen zela. Horrela, eskuz eta tornuz egindako zeramika-tipologia anitzaz eta jarduera metalurgiko garrantzitsuaren aztarnez gain (aleak eta ekoizpen-jardueraren aztarnak), beste ale esanguratsu batzuk nabarmentzen dira; besteak beste, beira-orezko besoko zati bat (K.a.-ko 220 eta 80. urteen artean datatua, eta ziurrenik zehazkiago K.a.-ko 175 eta 125 urteen artean), *Bascunes* txanpon-etxeko zilarrezko denarioa eta oin alderantzikatuko eta *Iturissa* motako fibulak.

Herrixka honetan orain arte lortutako C<sub>14</sub> bidezko datazioak hauek dira:

2360±120 BP, 2320 ± 90 BP, 2310 ± 55 BP, 2170 ± 80 BP, eta 1600 ± 80 BP

## **2022KO EKINALDIAN EGINIKO LANAK**

Irailaren 5a eta 23a bitartean gauzatutako 2022ko ekinaldian zehar bi sexuetako 20 pertsona inguruko lantaldeak parte hartu du, gehienbat arkeologoz eta gai horretako ikaslez osatua. Herrikkako zenbait gunetan esku hartu dugu, kasu batzuetan zalantza batzuk argitzeko eta, besteetan, hein batean ezagutzen genituen gai batzuetan sakontzeko.

Egiten ari garen azalerako indusketan, lurra azalez azal altxatzean datzan ohiko teknika erabiltzen dugu; gehienetan 10 cm-ko lodierakoak izan ohi dira, maila edo egitura zehatzen bat aurkitu arte.

Eremu hauetan esku hartu dugu:



2022ko landa-lanetan esku hartutako eremuaren ikuspegi orokorra.

#### 1. HARRESIAREN BARRUALDETIK HURBIL DAGOEN BIZILEKU ESPARRUA

Ondoz ondoko ekinaldietan zehar, azalera zabal eta ia horizontal hau azalez azal jaisten joan gara; bertan, zenbait zutoin-ziri –gutxi gorabehera lerrokatuta– eta hainbat tipologiatako (harrizkoa, zeramikazkoa, metalezkoa, beirazkoa, hezurrezkoa, karpologikoa) material arkeologikoa agertu dira, induskatutako geruza bakoitzean.

Aurtengo esku-hartzean, eremu horretako zati batean (batez ere V bandan) bi geruza jaitsi ditugu, aurrez maila baxuago batera induskatutako harresiaren barrualdeko horma-ataletik gertuen dagoen zerrendarekin (batik bat W banda) berdintzeko.

Azken maila horietan, azaleratze batzuez gain (besteak beste, geroago zehatzago aipatuko ditugun azaleratze zirkularrak), material gutxi batzuk baino ez dira agertu, nahiz eta kasuren batean, garrantzi handikoak izan. Kasu horietako bat da ia 70 cm-ko luzera eta ebakidura karratua duen burdinazko hagaxka. Materialen atalean hitz egingo dugu gehiago horri buruz.



Bizilekuen eremua ekinaldiko lehenengo geruza induskatu ostean.



Bizilekuen eremua V eta W bandak berdindu ondoren.



Burdinazko pieza aurkikuntzaren unean.

## 2. HARRESIAREN BARRUALDEKO HORMA-ATALA

Oraingoan ez dugu induskatu harresiaren barruko horma-ataletik gertuen dagoen zerrenda; izan ere, aurreko ekinaldietan inguruko eremuan baino kota sakonagora iritsiak ginen. Hala ere, barrualdeko horma-atal horren hegoaldeko zatitik gertu lan egin dugu, indusketa-eremua 13W koadrora gehituz. Jarraian aipatuko dugu lan hori.



Harresiaren barrualdeko horma-atalaren erdialdea.

### 3. HERRIXKARA SARTZEKO MENDI-BIDEAREN ONDOKO HARRESIAREN EREMUA: 13W KOADROA

Herrixkarako egungo sarbidearen (pista modernoa) eremu problematikoan harresiaren ibilbidea zehazteko asmoz, eta bertara sartzeko sarreretako bat aurkitzeko aukera ere ikusten genuenez, aurreko ekinaldian hainbat esku-hartze egin genituen; baina oraingoz ez digu zalantzetako bat ere argitu.

Ekinaldi honetan, harresiaren garapena ezagutzen dugun tokitik egungo pistaraino doan zerrendako indusketa-eremua zabaltzea erabaki dugu, hau da, 13Wko koadrora.

Horrela, eremu horretan hiru azal jaitsi ditugu, eta ondoko koadroen (etxebizitzaren eremua) antzeko estratigrafia dagoela egiaztatu dugu. Tamaina handiko hareharri triasikozko lauzak agertu dira, harresiaren barrualdeko horma-atalaren antzekoak eta 13W koadroan egitura hori erori izanari dagozkionak.

Hasierako azal horietan, etxebizitzaren eremu lauan gertatu bezala, material esanguratsuak agertu dira; horien artean, apaingarriak (fibulak eta zintzilikarioak) dagozkien brontzezko pieza batzuk nabarmendu behar dira.

2023ko ekinaldian gune horretan jarraituko dugu, ondoko koadroan (bizilekuen eremua) kotara iritsi arte, eta horrela, ia ziurtasun osoz zehaztuko dugu harresiaren ibilbidea, esparrura sartzeko gaur egungo pistak erasandako guneraino.



13W koadroan jaitzitako lehenengo azala.



13W koadroaren xehetasuna, jaitsi beharreko etxebizitzaren eremuarekin dagoen desberdintasuna ikusten delarik.



Bigarren azalaren indusketa gune berean.



Hirugarren azalaren indusketa 13W koadroan.



13W koadroaren xehetasuna, harresiaren barruko horma-atalaren goiko zatitik eroritako harlauzak ikusten direlarik.



Ekinaldiko azken azala, eroritako harlauzak kendu ondoren.

#### 4. 13V KOADROA, HAREN ZABALTZEA ETA ZIRKULU-FORMAKO AZTARNAK

Metro erdiko diametroa eta testura zakarra duten, eta oraingoz zehaztu gabe dauden, bi aztarna agertu direnez aurreko ekinaldietan induskatutako 13V koadroaren eremuan (induskatutako eremuaren hegoaldeko ertzaren ondoan), eta alboko 13W koadroan indusketa zabaltu dugunez, 13V koadro osoan esku hartu dugu, bi egitura zirkular horien izaera argitzeko, bai eta pistaren ondoko eremua argitzeko ere, herrixkarako sarbide zaharretako bat izan baitaiteke.

Gainazaleko mailak jaitsi ondoren, zeramikazko aztarna bakan batzuekin, nabarmentzekoa da itxuraz ondo antolatutako harri-lerrokadura bat aurkitu dugula, koadroaren mendebaldeko muga, iparraldetik hegoalderako norabidean, horma motaren batenak izan daitezkeenak.

Ekinaldi honetan egindako lanak puntu horretan eten ditugu; horrela, 2023ko ekinaldian posible izango dugu 13V eta 13W koadroak batera jaistea eta herriguneko eremu estrategiko horren antolamendua zehaztea;

bestela ere materialetan emankorra da, 13W koadroan induskatutako lehen azal horietan ikus daitekeenez.



Elementu zirkularrak





Elementu zirkularra





Hasierako indusketa-lanak 13V koadroaren zabaltzean.





13V koadroaren zabaltzean agertutako harri-lerrokadura.


##### 5. LAN OSAGARRIAK, EKIALDEKO TERRAZAKO BI INDUSKETA-EREMUEN ARTEAN HARRESIAREN LOTURA ZEHAZTEKO GEORRADAR BIDEZKO IKERKETARENTZAT

Herrixkara sartzeko bidearen ondoko eremuetan babes-lerroaren ibilbidea zehazteko asmoz eta, horrela, esparrura sartzeko ustezko puntu bat baieztatu ahal izateko, 2020ko ekinaldian bi jarduera egin genituen: georradar bidezko azterketa bat, lurpean ezkutatu dagoen tokietan ibilbidea zehazteko, eta bestetik, kanpoko eta barruko horma eta betelana argi eta garbi zehaztuta dauden indusketaren amaieratik, harresiaren 13W/14W koadroetan, herrixkara ekialdetik sartzeko gaur egungo mendi-bideraino.


Herrixkaren ekialdeko terrazan harresiak egiten duen ibilbidea hainbat fasetan induskatua dago ekialdetik aztarnategira igotzen den mendi-bidearen bi aldeetan (ipar eta hegoaldean). Hala ere, induskatutako bi ertzetako ibilbideak kota oso desberdinetan daude, eta egiturak alde horretan eten bat duela adieraz dezake; esparrurako ustezko sarrera batekin zerikusia izan dezakeena.

Horregatik, lursaila aztertzea erabaki zen, eremu horretan indusketa-lanak egin gabe babes-egituraren ibilbidea zehazteko.

Landa-lan hauek erakutsi digute norabide batean harri kontzentrazio bat egon daitekeela erakutsi digute, eta babes nabarmen desbideratzearen ondorio izan daiteke.



Ustezko sarrerarekin erlazionatutako harresi-eremuaren irudia.



Aztertutako eremuaren kokapena.

Aurtengo ekinaldian esku-hartze batzuk egin ditugu georradarrak emandako emaitzak egiaztatzeko.

Lehenengoa, arestian jada aipatua, 13V eta 13 W koadroetan eginiko zabaltzea da, Basagainera sartzeko gaur egun pistaraino harresiaren ibilbidea zuzenean zehazteko asmoz.

Bigarrena, hegoaldeko eremuko harresiaren gunean bi indusketa egitea izan da. Helburua inguru horretan harresiaren ibilbidea zehaztea zen, eta iparraldean jada induskatutako harresiaren beste zatiarekin nola lotzen den ikustea.

Horretarako, pistaren ertzaren berritze-indusketa bat egin dugu, lanak pistara bertara zabalduz 3,70 x 1,70 m-ko azaleran; eta, bestalde, 8 x 1 metroko lubaki bat induskatu dugu, egitura edo haren erorkina aurkitzeko.

Bi esku-hartzeetan ez da argi geratu harresirik edo haren erorkinik badagoenik, eta horrek zalantza handiagoak sortzen dizkigu egiturak eremu horretan duen ibilbideari buruz.





## MATERIALAK

Aurtengo ekinaldian hainbat motatako aztarna arkeologikoak aurkitu ditugu, baina zeramikak (eskuzkoak nahiz tornuzkoak) gailendu dira. Harrizko materialen artean, batik bat leuntzaileak eta eraunskailuak dauzkagu, baina lerro zuzenak grabatuta dituen harlauzaren bat ere aurkitu dugu.

Zepa aztarnak asko izan dira.

Era berean, burdinazko pieza batzuk ere aurkitu ditugu; horien artean, 70 cm inguruko luzera duen, eta ikertzen ari garen, hagaxka bat nabarmendu behar da. *Clavi caligae* bat ere agertu da.

Brontzezko bi fibulen eta eraztun baten aztarnak ere aurkitu ditugu.

Azkenik, kolore urdineko beirazko lepoko-ale baten zati bat ere aurkitu dugula nabarmendu behar da.





Jadanik amaitutako inbentarioa kontuan izanda, hauek dira aurtengo ekinaldian jasotako aztarnak:

Harrizko materiala:

- Uharriak: 15
- Leuntzaileak: 7
- Jaurtigaiaak: 2
- Errota: 2 zati
- Fitxak: 2
- Suharrizko industria: 2
- Ebaki-markak dituzten harlauzak: 3

Zeramikazko materiala:

- Eskuzkoa:
  - Formak (ertzak, hondoak, apaindurak): 51
  - Zeramika orokorra: ehunka zati
- Tornuzkoak: 8

Metalezko materiala:

- Minerala: 1
- Zepa: 16
- Piezak: burdinazko 8 eta brontzezko 5

Kereta: 22

Fauna: 28

Ikatz: ehunka aztarna

Beira: beirazko lepoko-ale erdia

### **BESTE EKINTZA BATZUK ETA ONDAREAREN ZABALKUNDEA**

Aurreko urteetan bezala, indusketako orduetan bisita asko jaso ditugu aztarnategian, batez ere, Oria bailarako zenbait ikastoletako umeena, baina baita jende helduarena ere. Bisita horiek guztiak, Anoetako udalak koordinaturik, indusketako lan-taldeko kideren batek gidatu ditu.

Aurreko ekinaldietan bezalaxe, indusketa-ekinaldian zehar aztarnategira etorritako eskualdeko eta herrialdeko zenbait komunikabideri kasu egin genien.



Ikastolako talde bat 2022ko arkeologia-lanak ikusten.

### **TALDEAREN OSAKETAREN DATUAK SEXUAREN ARABERA:**

Hauek dira lan-taldearen datuak: ekinaldian zehar 20 pertsonen parte hartu dute, horietatik 11 emakumeak ziren eta 9 gizonezkoak.

### **ARKEOLOGIA-LANEN OSTEAN HARTUTAKO BABES-NEURRIAK**

Indusketa amaitu ondoren, urtero egiten dugun moduan, esku hartutako azalera osoa plastikoz estali dugu, eta haren gainean, lurrezko poltsak jarri ditugu, espazioa babestuta mantentzeko eta landaretza agertzea saihesteko.